

IZAERA HANDIKO SAGARDOAK

2022ko sagar uztarekin egindako sagardoak izaera handikoak izango dira orokorrean, eta 2021eko uztarekin egindakoak baino alkohol graduazio handixeagoa izango dute.

Iazko sagar uztarekin aurrekoa baino txikiagoa izan da kopuruz. 2021ean uztare handia izan zen, eta 2022an txikiagoa espero zitekeen, eta udarako eguraldi lehorrak ere eta txikiago egin du uztare. Horrek eraginda, aurreko urtekoa baino izaera handiagoko sagarra etorri da, bai tanino aldeetik, bai eta azukre aldeetik ere, eta izaera handiagoko sagardoak izango dira aurreko Euskal Herriko sagardotegirik gehienetan.

Beraz, 2022ko sagar uztarekin egindako sagardoak tanino altuko eta izaera handiko sagardoak izango dira orokorrean, eta 2021eko uztarekin egindakoak baino alkohol graduazio handixeagoa izango dute. Luzera bilakaera oso ona izango duten sagardoak dira, oro har.

SAGARRAREN FESTA

Astigarragan (Gipuzkoa) 2022ko sagar uztarekin egindako lehen muztioa dastatzeko aukera egon zen Udazken zapoz lelopean antolatu zen 22. Sagar Uztare egitasmoaren barruan. Hainbat jarduerak egin ziren irailaren 22tik 25era. Azken egunean, sagarraren festa egin zen, antolatzaileek

eta herritar ugari topa herrikoia egin zuten 2022ko sagar uztarekin egindako lehen muztioarekin. Irailaren 21ean, 2022ko sagar uztare aurkeztu zuten.

Astiko Merkatarien Elkarteak, Astigarragako Udalak, taberna-riek eta kultur taldeek antolatu zuten 22. Sagar Uztare. Halaber, egitasmoa antolatzeaz gain, iaz Gipuzkoako sagasti batzuen kontrola egin zuten sagarren egoerarekin berri izateko. Horretarako, sagardo sagarraren heldutasunaren egoera aztertu zuten, eta bi alderdi nabarmendu zituzten. Batetik, sagar asko erortzen ari zirela, batez ere barnealdeko sagastietan. Egindako analisaren arabera, baliteke beroaren eta lehortearen ondorio izatea. Bestetik, nabarmendu zuten klima baldintzak aldatzen ez badira litekeena dela heldutasunak ohi baino azkarrago aurrera egitea aurrerantzean ere.

Donostiako Sagardo Egunean ere, irailaren 3an, sagardoazaleek 2022ko sagar uztarekin egindako muztioa dastatu ahal izan zuten.

IGOERA SALNEURRIAN

Sagardoaren sektoreak %25 inguru igoko du sagardoaren prezioa 2023an, batez beste, egoerak eragindako kostu zuzenen igoera



2022ko sagar uztaren aurkezpena, Astigarragan. IDOIA ZABALETA / FORUM



Topa herrikoia 2022ko lehen sagar muztioarekin, Astigarragan. SAGARDOAREN LERBALEK

dela eta. Izan ere, inflazioak eragindako igoerak eragin zuzena izan du sagardoaren kostuetan ere, beiraren, kartolaren, energiaren eta gasoilaren prezioen igoeraren ondorioz, nagusiki. Sektore gehienetan gertatu den moduan, prezioak eguneratu be-

har izan ditu sagardoaren sektoreak ere, egungo egoerari aurre egin ahal izateko.

Sagardoaren sektoreko kideek azpimarratu dutenez, bertako nekazaritza, bertako industria, bertako ostalaritza eta bertako banaketa sistemak uztartzen dituen

eremua da sagardoa. «Bertako ekonomia sustatzen du, lanpostuak eta aberastasuna bertan sortuz. Baina sagardogintzak, bidegarria izateko, eskaintzen duenaren neurritik prezio bat behar du. Sagardoari merezi duen alortza eta balioa eman behar zaio».



Asteartetik igandera, irekita

Bakailaoa
saltsan,
enkarguz!



LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia

Sagardo
botila
urte osoan
salgai

943-55 58 46 • 616-28 78 67

LARRE-GAIN BASERRIA • ERRENOTZU • HERNANI